

Informazio-zirkularra: 2022/09

Hernani, 2022ko irailaren 5a

2023KO EGUTEGIA

Lan Zuzendaritza Nagusiak 2022ko urriaren 7an 2023ko lan-jaiegunei buruz argitaratutako Ebazpenaren arabera, **12 jaiegun** nazional izango dira 2023ko lan-egutegian; haietariko 9 lurralde osoan ospatuko dira, eta gainerako 4rak, berriz, beste batzuekin ordezkatu daitezke.

Euskadin, hamabi jaiegun hauek izango ditu 2023ko lan-egutegiak:

- Urtarrilaren 6a (Errege Eguna)
- Apirilaren 6a (Ostegun Santua)
- Apirilaren 7a (Ostiral Santua)
- Apirilaren 10a (Pazko astelehena)
- Maiatzaren 1a (Langilearen Eguna)
- Uztailaren 25a (Santiago eguna)
- Abuztuaren 15a (Ama Birjinaren Jasokundea)
- Urriaren 12a (Espainiako jai nazionala)
- Azaroaren 1a (Domu Santu eguna)
- Abenduaren 6a (Konstituzioaren eguna)
- Abenduaren 8a (Sorkunde Garbia)
- Abenduaren 25a (Eguberri eguna)

Egun horiez gain, beste bi jaiegun gehitu behar dira, udal eta aldundiek erabaki beharrekoak.

Gipuzkoako lurralde historikoan, honako hauek izango dira 2023ko tokiko jaiegun ordaindu, ez-berreskuragarri eta lan-ondorioei begira baliogabeak:

- Uztailaren 31, San Inazio Loiolakoa, Gipuzkoako lurralde historiko osoan.
- Gipuzkoako lurralde historikoko herri bakoitzari dagokion jaieguna. Hernanin, ekainaren 24a, San Joan eguna.

Kontseilari ordezkariak kobratu ahal izan dezan, lege-baldintza batzuk bete behar dira.

Sozietate anonimo zein mugatueta, administrazio-organoa administrazio-kontseilu baten bitartez antolatzen denean, kontseiluaren bileretan hartzen dira erabakiak, denen artean.

Dena den, askotan, kontseilari ordezkari baten esku uzten da enpresaren kudeaketa arrunta egitea eta kontseiluaren erabakiak hartzea; eta, zenbait kasutan, pertsona horrek zerbitzu hori kobratzea adosten da.

Kontseilari ordezkariarik badago, beharrezkoa da berarekin kontratu bat sinatzea, baldintza hauek kontuan hartuta:

- Kontseiluko kideen 2/3ek onartu behar dute (kontseilari ordezkariak ez du izango bozketara joateko eta bozkatzeko eskubiderik).
- Kontseilari ordezkariak zer kontzepturen truke kobratuko duen adierazi behar da, baita kontseilari ordezkaria kargugabetuz gero zer kalte-ordain kobratuko duen edo sozietateak aseguru-primen edo aurrezki-sistemen ekarpenen kontzeptu gisa ordaindu beharreko diru kopuruak zein diren ere.

Horrez gain, kontseilari ordezkariak ordaina jasotzen badu bere funtzio exekutiboak egitearen truke, beharrezkoa da estatutueta ezartzea «kargua ordaindua» izango dela, eta zer sistemaren arabera ordainduko den zehaztu beharko da. Ildo horretan, bazkideen batzordeak erabakiko du zein izango den «urteko ordainsariaren gehienezko kopurua».

Baldintza horiek betetzen ez badira, gerta daiteke kontseilari ordezkariari eskatzea itzul dezala jasotako ordaina, edo, itzultzeko eskatu gabe ere, gerta daiteke Ogasunak erabakitzea jasotako dirua ez dela gastu kengarri bat sozietatearentzat.

BRINTZAn, zehatz-mehatz azalduko dizugu kontseilari ordezkariaren ordainketa-sistema nola antolatu, zer baldintza bete behar diren, eta nola idatzi behar den haren eta sozietatearen arteko harremanak arautzeko kontratua.

LAN-ARLOA: APARTEKO ORDUEN JURISPRUDENTZIA

Aparteko orduak enplegatu bakoitzak bere ohiko lanaldiaren gehienezko iraupenetik gora egiten dituen orduak dira.

Langileek ezin dute egin 80 aparteko ordu baino gehiago urtean (ezinbesteko kasuetan exijiturikoak kontatu gabe), ezta haiekin edo haien lege-ordezkariekin akordioaren bat eginez gero ere.

Aparteko orduak langileen borondatezkoak dira, salbu ezinbesteko kasuetan, haiekin espresuki edo haien lege-ordezkariekin adosturiko kasuetan, edo hitzarmen kolektiboan ezartzen den kasuetan.

Adostutakoaz edo kontratuan ezarritakoaz kanpo, enpresa batek aparteko orduak egiteko eskatzen badio langile bati, hark aukera izango du askatasunez onartzeko edo uko egiteko, baita esku artean duen lana bukatu behar badu ere.

Langile batek aparteko orduen harira erreklamazioaren bat egin edo judizialki inpugnatzen badu, haren esku egongo da ordu horiek egin izana frogatzearen zama: agiri bidez ziurtatu beharko ditu egindako ordu guztiak (egunez egun eta orduz ordu), horretarako esku artean dituen baliabide guztiak erabilita.

Dena den, aparteko orduak noizean behingo kontu bat izan beharrean ohikoak badira, enpresak ziurtatu beharko du langileak ez duela aparteko ordurik egin, agiri bidez.

Egindako aparteko orduak jasota gera daitezen, lan-araudiaren arabera **enpresari guztiek egunero erregistratu behar dute beren langile guztien lanaldia**, bakoitzaren lanaldiaren hasiera- eta amaiera-orduak zehatz-mehatz adierazita.

Enpresari dagokio erregistroa egiteko betebeharra, eta, betetzen ez badu, 7.500 eurorainoko isunak ordaindu beharko dira lantoki bakoitzeko.

Gogorarazten dizuegu Brintzako Departamentu Juridikoan kalitatezko zerbitzua emango dizuegula arlo hauetan: diru-erreklamazioak, ordaindu gabekoak, saleroste- eta errentamendu-kontratuen arloko aholkularitza eta idazketa, herentzien tramitazioa, testamentuen arloko azterketa eta aholkularitza pertsonalizatua, erretiroak eta ezgaitasunak, eta abar.